

PASAPORTE ABENTURAZALEA. GJH IBILBIDEA

IRAKASLEENTZAKO TXOSTENA



Edukigileak:

Mónica Nuño Viguria

Celia Sainz Alonso

Auditoretza eta edizioa:

ONAY

Avda. Baja Navarra 64, 1º

31006 Pamplona—Navarra

(+34) 948 176 048

onay@onay.org

www.onay.org

Diseinua eta maketazioa:

JGA Estudio

jga@jgaestudio.com

www.jgaestudio.com

Inprimatzea:

Gráficas Allo

Lege Gordailua:

DL NA 155-2025

Finantzazioa:

Gobierno de Navarra

**Gobierno
de Navarra**  **Nafarroako
Gobernua**



**Lan hau libreki kopiatzeko, banatzeko eta publikoki komunikatzeko baimena daukazu, betiere egiletasuna aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada.*

SARRERA

“**Pasaporte Abenturazalea: GJH ibilbidea**”. Lehen Hezkuntzarako sortu den hezkuntza-materiala da. Ikasleak ahalduntzeko helburua du, herritartasun globalarekin bat egin dezaten: hau da, izan daitezela pertsona informatuak, kritikoak eta proaktiboak, erronka globalen gainean jokatzeko gaitasuna izango dutenak gizarte bidezkoagoa, baketsuagoa eta jasangarriagoa lortzeko.

Garapen Jasangarriko Helburuek (GJH) nazioarteko agenda markatzen dute eta pertsona guztiak lotzen dituzte errealitatea hobetzeko erronkekin. Helburuen bidez, ikasleei bidaia bat egitea proposatuko zaie, gu denok bizi garen mundu konplexua ezagutzeko eta hartan jokatzeko.

Hezkuntza-baliabide hau ikasleentzako “Pasaporteak” izenburuko liburuxkak eta irakasleentzako erreferentzia gida honek osatzen dute. Egokiak dira jarduerak egiten laguntzeko eta,aldi berean, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) eskola-curriculumean txertatzeko.

Pasaporte horrek bidaia gidatuko du hainbat herrialde eta kulturatan zehar. Bidaiari esker, herrialde horien ezaugarriak ikasiko ditugu dela geografia eta kulturari begira, dela ekonomia eta gizarteari begira, eta, horrez gain, erakusten da nola bultzatzen dituzten leku bakoitzak eta bertako jendeak Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH).

Pasaportearen atal bakoitzak berriazko herrialde bat jorratzen du, informazio garrantzitsua emanez, hala nola hiriburua, biztanleria, hizkuntza ofiziala eta kultur berezitasunak. Era berean, lurralde eta komunitate horien arazo berezi batzuk nabarmentzen dira. Horiek harremanetan jartzen dira erronka globalekin, hala nola pobrezia ezabatzearekin, ingurumena babestearekin edota kalitateko hezkuntza eta genero berdintasuna sustatzearekin.

Pasaportearen formatua diseinatu da hezigarria, entretenigarria eta erakargarria izateko. Horrela, ikasleak beren ikaskuntzarekin lotu nahi ditu; kontzientzia har dezatela herritartasun globalean sarturik daudela, toki mailan egiten dituzten ekintzen bidez. “Bidaia” hau bururaino egitean, ikasleek nola halako ezagutza izango dute munduko hainbat lekuri buruz, eta trebetasun garrantzitsuak garatuko dituzte, hala nola pentsamendu kritikoa eta enpatia, funtsezkoak baitira herritartasun global kontziente eta arduratsu gisa prestatzeko.

ATALAK

Pasaporte **atalez atal** dago diseinatua, GJHein lotutako ikaskuntzaren antolaera eta dokumentazioa errazteko:

- 1. Edukien taula:** Jarduera bakoitzean lantzen diren GJHen laburpen bisuala ematen du.
- 2. Ikasleen fitxa:** Ikasleen informazioa biltzeko, pasaporte pertsonalizatuz eta bakoitzari fitxa bat emanez.
- 3. Kontinentearen eta herrialdearen deskribapena:** Kontinente bakoitza berriazko herrialde baten bidez esploratuko dugu. Propio aukeratutako herrialde bat da, halako egoera eta gorabehera nabarmenak dituelako GJHen baitan. Kasuan kasuko herrialdearen inguruko deskribapen soil bat dakar, kulturari, geografari eta gizarteari buruzko alderdi batzuk zehaztuta. Alderdi horiek, izan ere, behar bezalako testuinguru emango digute GJHei lotutako jarduerak lantzeko. Honako herrialde hauen inguruan lan egingo dugu:

- Afrika: Kongoko Errepublika Demokratikoa
- Amerika: El Salvador
- Asia: Txinako Herri Errepublika
- Europa: Italia
- Ozeania: Australia
- Antartika: Lurralde hori sartu dugu ikerketa globalez eta ingurumen gai berezko eztabaidatzeko.

4. Bidaia liburua: Jarduera bakoitzari leku jakin bat egokitu zaio, ikasleek beren gogoetak, ikaskuntzak eta konpromisoak idatz ditzaten, jardueretan parte hartu eta gero.

Hezkuntza baliabide honek gai garrantzitsuak eta arazo global konplexuak jorratzen ditu, eta saiatu da horiek guztiak errazago ematen, ikasgela banean lantzeko. Horrela, herritartasun globalaren oinarriak ezarri nahi ditu, eta eragile izan nahi du gizarte arduratsu eta konprometitu lortzeko, epe luzean etorkizun jasangarriago eta ekitatiboago bat erdiesten laguntze aldera.

EDUKIAK ETA JARDUERAK

Taula honetan, edukien eta jardueren proposamena dago zehaztua. Taulan, jarduera bakoitzean landutako GJH nagusiak daude jasoak; hala ere, gure iritziz, estuki daude lotuak eta beste batzuk ere zeharkakotasunez lantzen dira. Era berean, jarduera hauek Lehen Hezkuntzako eskola curriculumaren arloen inguruan daude antolatuta.

Horrela egituratu badira ere, jarduerak proposamen ireki eta malgua izan nahi dute, eta zernahi egokitzapen egin daiteke bai taldera, bai berariazko ikaskuntza-testuingurura doitzeko. Horrenbestez, ONAYn irakasleen esanetara gaude, egokitzapen horiek egiteko, beharrezkoa bada. Azken xedea ikasleentzako ikaskuntzen integrazio esanguratsua da.

BIDAIA	JARDUERA	DESKRIBAPENA
KONGOKO ERREPUBLIKA EMOKRATIKOA (AFRIKA)	1. Amani Jaialdi Txikia: Kulturak bakearen alde batzen.	Kultur aniztasuna. Kongoko Errepublika Demokratikoko kultur eta hizkuntza aniztasuna arakatzen du.
	2. Koliren bidaia	Gatazkarik gabeko teknologia. Teknologiak gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak arakatzen ditu, Kongoko Errepublika Demokratikoan erazten diren mineralek eraginda; adibidez, koltana.
EL SALVADOR (AMERIKA)	3. Lurretik platerera	Agroekologia eta elikadura-burujabetza. Ekoizpen eta kontsumo praktika jasangarriak sustatzen ditu, bai eta naturarekin bat datozen bizimoduak ere.
	4. El Salvadorko emakume aitzindariak	Emakumeen rola. Genero ekitateaz hezten du, bai eta aukera berdintasunak duen garrantziak ere.
TXINAKO HERRI ERREPUBLIKA (ASIA)	5. Txinako erronka handia	Ingurumen babesa Vs garapen ekonomikoa. Harremanetan jartzen ditu Iparraldeko herrialdeetako ekoizpen moldeak nahiz kontsumo neurrigabea gizarte desberdintasunekin eta eskubideen urraketarekin. Ikuspegia: kontsumoa murriztea, birziklatzea eta berrerabilitzea.
	6. Ibilbide hezigarriak: ametsak eta erronkak Txinako eskolan	Landa eremuen eta hiri eremuen arteko desberdintasunak. Hezkuntza arloko esperientziak alderatzen ditu hiri eta landa eremuetan, hezkuntza eskuratzeko orduan eta haren kalitatean diren desberdintasunen inguruan enpatia eta kontzientzia sustatzeko.
ITALIA (EUROPA)	7. Artea eta komunitatea: turismo arduratsuaren erronka.	Artea, kultura eta tradizioak. Ingurumena, leku historikoak eta artea babestea turismoak eta hiri garapenak dakartzaten ondorio kaltegarrien aurka.
	8. Italiako altxorren zaintzaileak	Turismoaren eta hiri garapenaren ondorioak. Ingurumena, leku historikoak eta artelanak babestea turismoak eta hiri garapenak dakartzaten ondorio kaltegarrien aurka.
AUSTRALIA (OCEANIA)	9. Istorioak kontatzeko artea	Aborigenen artea. Kultura eta tradizio indigenen babesa eta harekiko estimua sustatzen ditu.
	10. Ozeanoa salbatzeko antzokiak	Jasangarritasuna eta kontserbazioa. Ozeanoen eta itsas baliabideen kontserbazioa lantzen du.
ANTARTIKA	11. Antartika esploratzeko taldeak	Jasangarritasuna eta kontserbazioa. Espezieak eta habitatak kudeatzera eta zaintzera bideratua.
	12. Termometro bat Antartikan	Berotze eta inpaktu globala. Klima-aldaketak Antartikan eragindako inpaktua eta huraxe arintzeko ekintzak ditu langai.

LOTURA DUTEN CURRICULUM ARLOAK	GJH
Gaztelania eta Literatura. Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza. Hezkuntza artistikoa.	16. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza.	12. GJH 16. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza.	12. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza. Balio Zibikoen eta Etikoen Hezkuntza.	5. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza.	11. GJH 12. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza. Balio Zibikoen eta Etikoen Hezkuntza.	4. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza. Hezkuntza artistikoa.	11. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza. Hezkuntza artistikoa.	15. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza. Hezkuntza artistikoa.	11. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza. Hezkuntza artistikoa.	14. GJH 15. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza.	14. GJH 15. GJH
Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza.	13. GJH

AFRIKA

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA



AMANI JAIALDI TXIKIA: KULTURAK BAKEAREN ALDE BATZEN

Jarduera honetan, Kongoko Errepublika Demokratikoko kultur aniztasuna landuko dugu eta, era berean, arteak eta kulturak duten indarra gatazkak daudenean bakea eraikitzeko.

Amani Jaialdia izeneko kultur eta musika ekitaldia urtero egiten da Goman, Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko eskualdean, hain zuzen. Helburu nagusia bakea, batasuna eta garapena sustatzea da gatazka armatuek eta indarkeriak erdi-erditik jo duten inguru batean. "Amani" hitzak bakea esan nahi du swahiliz, eta jaialdiak bertako eta nazioarteko artistak bildu nahi ditu, milaka ikuslerekini batera, denek elkarrekin kultura, musika eta dantza ospatzeko. Kontzertuez gain, jaialdian ere arte, kirol eta gizarte arloko jarduerak egiten dira, eskualdeak dituen arazoez kontzientziazteko eta Kongorako etorkizun oparoagoa sustatzeko.

16. GJH -BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK



HELBURUAK

- Kongoko EDko kultur aniztasunaren gaineko elkar ulertzea sustatzea.
- Musikak, arteak eta kultur tradizioek gatazka egoeran bakea eta komunitatea nola sustatzen dituzten arakatzea.
- Ikasleak Bake Kulturaren aldeko lanean inspiratzea, sormena eta kultur adierazpena gatazkari aurre egiteko tresna gisa erabiliz (eta ez gatazkaren ukaziotik ekinez).



MATERIALAK

- Ikasgela Amani Jaialdiaren moldean apaintzea- Esteka honetan, irudiak ikusiko dituzue: <https://amanifestival.com/fr/en-images> (*Le Festival Amani À Goma 2024, s. f.*)
- Kartoi meheak eta koloretako paperak.
- Margoak, errotulagailuak, koloretako arkatzak.
- Musika erreproduzitzeko gailua: Amani Jaialdiko musika erreproduzitzeko dugu, jarduera egiten duten bitartean.
- Koloretako zinta, maskarak eta oihalak.
- Karteletan bakea eta batasuna adierazten dituzten gako hitzak erabiliko dira swahiliz, lingalaz, frantsesez (KEDko hizkuntza ofizialak), eta bertako beste hizkuntza batzuetan (hala nola, kikongo eta tshiluba izan daitezke).



JARDUERAREN GARAPENA



1. **Sarrera:** Amani Jaialdia eta Kongoko EDko egoera azalduko ditugu labur:

Kongoko errepublika Demokratikoak (Kongoko ED) arazo asko izan ditu urteetan, hainbat talderen arteko borroken ondorioz. Zenbaitetan, talde horiek borroka egiten dute baliabideak kontrolatzeko, oso baliotsuak baitira; adibidez, mineralak. Borrokk, batzuetan, gatazka armatuak izan dira eta sufrimendu handia eragin dute jendearengan. Izan ere, pertsonak, askotan, etxeetatik alde egin behar izaten dute bizitza salbatzeko. Baina Kongoko EDn ere badira bakearen alde ari diren pertsona asko, jende guztia

lasai bizi eta eskolara joan ahal izateko, eta leku seguru batean hazi ahal izateko. Bakea beharrezkoa baita, jendea ongi biziko bada!

Amani Jaialdia adiskidetasunaren eta bakearen jai handia da, eta Goman ospatzen da, hau da, Kongoko ekialdeko hiri batean. "Amani" hitzak "bakea" esan nahi du swahiliz, hau da, munduko leku horretan mintzatzen den hizkuntzan. Jaialdia oso berezia da, leku askotako jendea biltzen delako, baita inguruko herrialdeetako jendea ere, denak elkarrekin musikaz, dantzaz eta beste jarduera dibertigarri batzuek gozatzeko.

Amani Jaialdiak erakutsi nahi du, zailtasunak zailtasun eta Kongoko Errepublika Demokratikoan eta inguruetan batzuetan gerta daitezkeen gatazkak gorabehera, jendea batu egin daitekeela, eta bakea ospatu eta lagunak egin ditzakeela. Izan ere, abestien, dantzen eta irrien bidez, jaialdian ari diren pertsonen adiskidetasunezko eta elkar ulertzeko zubi bat eraikitzen laguntzen dute kultura ezberdinen artean.

Zergatik egiten da? Musikak eta dantzak halako indar magikoa dutelako pertsonak zoriontsu eta adiskideturik senti daitezten. Eta Amani Jaialdiak indar hori erabiltzen du, eskualde horretan bizi den jende guztiarentzako etorkizun baketsuagoa sortzen laguntzeko. Azken finean, horrela gogora ekartzen dugu, desberdinak bagara ere, pertsona guztiok elkarrekin lan egin dezakegula mundua leku hobea izan dadin.

- Amani Jaialdiaren bideoak:

Amani Jaialdia 2023: www.youtube.com/watch?v=zODH5NVznSo (Amani Live, 2023).




Trailera: www.youtube.com/watch?v=G8ltuFT4f84 (UNV DRC, 2013).



Azaldu, Amani Jaialdian bezala, ikasleek beren **Amani Jaialdi Txikian** parte hartuko dutela eta, horrela, musika, artea eta kultur tradizioen bidez, bakea eta aniztasuna ospatuko dituztela. Eman musika tradizionalari buruzko adibide batzuk, tokiko hizkuntzetako hitz batzuk eta KEDko dantzak, eta animatu ikasleak entzun eta ikustera nola ospatzen den bakea kulturaren bidez.

2. Kultur taldeen dinamika

Banatu ikasleak talde txikitan eta eman talde bakoitzari KEDko etnia edo kultur talde bat (adibidez, Luba, Kongo, Mongo, Hema, Swahili).



Sormenezko eginkizuna: Talde bakoitzak egokitu zaion kulturari buruzko ikerketa egin edo informazioa jaso behar du, eta ondoren, bere kultur emanaldia sortuko du jaialdian erakusteko.

- Egokitu zaien kultur taldearen ohituretan inspiratutako maskarak edo jantziak erabil ditzakete (kartoi meheak, oihalak eta zintak erabiliz).
- Aukeratu dezatela bake hitz bat, egokitu zaien kulturari dagokion hizkuntzan. Nola ahoskatzen den ikasi eta ikaskideen aurrean aurkeztuko dute.
- Kultur adierazpide txiki bat sortuko dute, kulturen arteko komunitate sentimendua sustatzeko: abesti, dantza edo arte adierazpen bat izan daiteke...

3. “Amani Jaialdi Txikiaren Pabilioia” prestatuko dute

Ikasgelan, jostalekuan edo erabakitzen den lekuan, ikasleek jaialdiaren esparrua prestatuko dute, sortu dituzten apaingarriekin apaintzeko (maskarak, jantziak, gako hitzak). Taldeek beren bake hitzak zintzilikatuko dituzte beren pabiloietan swahiliz, lingalaz edo frantsesez, batasuna irudikatzen duten apaingarriekin batera.

4. Amani Jaialdi Txikiaren ospakizuna

Dena prest dagoenean, jaialdia hasiko da. Talde bakoitzak bere aurkezpena egingen du, hau da, beren hitza, jantzia eta kultur adierazpideak aurkeztuko dituzte, prestatu dutenarekin bat. Ikasleek talde bakoitzaren kulturari buruz entzun eta ikasi beharko dute, jakin-mina, errespetua eta kultur aniztasunaren elkar ulertzea sustatuta.

5. Azken gogoeta: Bake Kultura

Bukatzeko, gonbidatu ikasleak KEDko kulturei buruz ikasitakoaz gogoeta egitera, eta nola musika eta artea lagungarriak izan daitezkeen gatazkak konpontzeko. Gidatu bakearen garrantziari buruzko eztabaida bat eta nola ikasleek ere beren bizitzara, komunitate eta familiengana eraman dezaketen jaialdiaren ikasbidea.

6. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko “bidaia egunkarian” jasoko dute ikasitakoa.

KOLIREN BIDAIA

Jarduera honetan landuko dugu zeinen garrantzitsua den gatazkarik gabeko teknologia jasangarria kontsumitzea, hau da, ahalik eta gehien murriztuz ingurumenena eta gizarteetan sortzen den eragin kaltegarria; bereziki, Kongoko ED bezalako lurraldeetan, mineralen erauzketak kaltetuak baitaude. Mineralen artean, adibidez, koltana dago erdigunean.

12. GJH- EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK



16. GJH- JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK



HELBURUAK



- Mineralen erauzketak Kongoko Errepublika Demokratikoan duen inpaktuaz sentsibilizatzea, bai eta teknologiaren kontsumo arduratsuz ere.
- Ikasleengan ingurumen eta gizarte arloko ardura sustatzea.
- Gailu teknologikoak birziklatzeari eta zaintzeari buruzko gogoeta bultzatzea.

MATERIALAK



- "Koli" panpina (plastilina edo kartoi mehez egina).
- Kartoi mehea, papera eta margoak.
- Kutxatilik edo material birziklatuak, "birziklapen zentroak" edo "lantegiak" egiteko.
- Munduko mapa bat edo lur-globo bat.
- Zinta itsasgarria, guraizeak.
- "Super-heroi botereak" txartelak (trebetasuna, hala nola "birziklatu", "teknologia kontsumoa murriztu", "gailuak konpondu")

IPUINA: KOLIREN BIDAIA

Kongoko Errepublika Demokratikoko oihanik sakonenetan Koli bizi zen, hau da, koltanezko mineral txiki bat. Koli ez zen mineral arrunt bat; haren barruan zerbaitek egiten zuen taupada, eta bere distira urdinxkan gordea zegoen botereak behar bezalako indarra zuen mundu modernoaren gauza miresgarriak bizitza emateko.

Koli bere jatorriaz eta bere botereaz harro bazegoen ere, kanpoaldeko munduari buruzko ikusmina ere bazuen. "Zer abentura biziko ote ditut oihan hauetatik harata?", galdetzen zion bere buruari.

Behin batean, bizitza ustekabeen goitik behera aldatu zitzaion, urutiko jendea basora iritsi zenean, lurrean ezkutaturako altxorren bila. Kanpokoek Koli bere etxetik kontu handiz atera zuten, gurea lagunak bidaia luze bat egiteari ekin zion. Mundua ikusteaz poz-oz bazegoen ere, ezin zituen burutik kendu bere oihaneko soinuk eta koloreak.

Sekulan imajinatu ere ez zituen lekuetan ibili zen bidaiatzen. Lehenik, lantegi batera garraiatu zuten eta, han, eraldatu eta batera bateko zatitxo bat bihurturik gelditu zen, telefono adimentsu batean erabiltzeko.

“Orain, askoz ere gauza handiago baten parte naiz”, pentsatu zuen Kolik, pozez gainezka baitzegoen pertsoneri beren artean komunikatzen laguntzegtatik.

Denborarekin, ordea, Koli ohartzen hasi zen zeinen korapilatsua zen bere bizitza berria. Ikusi zuen, adibidez, askotan zaborretara botatzen zituztela batere konturik gabe bera bizi zen bezalako gailuak, lurra eta ura kaltetuta eta kutsatuta. Era berean, bere etxeari buruzko istorioak entzun zituen; adibidez, jendea, izan ere, bera bezalako mineralen bila zebilen, eta horrek gerra handi bat piztu zuen; izan ere, mundu guztiak gailu digitalak nahi zituen, eta hori sekulako kaltea eragiten ari zen ingurumenean.

Behin batean, Kolik bizilekutzat zuen telefonoa birziklatu zuten. Orduantxe, Mina ezagutu zuen, hau da, kobrezko mineral bat, eta Minak “Lurreko Super-heroie” hitz egin zion. “Super-heroiak” haurrak ziren, hau da, beraiek bezalako mineraletatik ikasi eta planeta zaintzeko konpromisoa hartzen zuten haurrak.

“Zure ustez, aldaketa horren parte izan gaitezke?”, galdetu zuen Kolik, itxaropenez beterik.

“Bai”, erantzun zion Minak. “Baten batek birziklatzea erabakitzen duen bakoitzean, erabilgari izateko aukera ematen digu, gure etxeari kalterik eragin gabe”.

Koli bete-betea sentitu zen. Une hartatik aurrera, bere buruari hitza eman zion istorio hura kontatuko ziola biziko zen gailu bakoitzari, eta pertsoneri erakutsiko ziela zeinen garrantzitsua den kontsumo arduratsua, bai eta birziklapena ere.

Eta horrela, Kolik koltanezko mineral txiki bat izaten jarraitzen bazuen ere, bere mezua indartzen hasi zen eta pertsonak batu egin zituen munduaren edertasuna eta aberastasuna babesteko. “Lurreko Super-heroiak” gero eta gehiago ziren, eta Kolik bazekien, denek elkarrekin, gauza garrantzitsu bat egin zezaketela, beren bizilekuari (Kongoko Errepublika Demokratikoa) eta halako lekuei zerien magia etorkizuneko belaunaldientzako babesteko.



JARDUERAREN GARAPENA

1. Sarrera elkarreragilea: Koliren bidaia

- Jarduera bere testuinguruan kokatzea:

Jardueran gailu elektronikoak izango ditugu ardatz, hau da, mugikorra, ordenagailua.... Nola lortzen dugu gailu horiek funtzionatzea? Zer dute barruan?

Zaila da gatazkan diren mineralei buruzko azalpena. Hori dela eta, hemen lehenbiziko hurbilketa bat egitea hobetsi dugu, egungo belaunaldiak teknologien funtzionamenduarekin jaio eta sozializatzen baitira era normalizatuan.

Komeni da esatea koltana dela Kongoko Errepublika Demokratikorako mineralik garrantzitsuena, beste batzuk ere badiren arren, hala nola eztainua, tantalioa, wolframioa eta urrea. Azaldu daiteke koltan meategi gehienak herrialde horretan daudela eta ohikoa dela haietan haurrek lan egitea. Baina meategietan lan egitea oso arriskutsua da, eta haur horiek eskolan egon beharko lukete beren hezkuntza ziurtatzeko.

Jakizu nola lan egiten duten haur batzuek Kongoko Errepublika Demokratikoan: www.youtube.com/watch?v=cAJp-4GDfiro (ACNUR Espainiako Batzordea, 2018).



Behin afera testuinguruan kokatua, “Koliren bidaia” ipuina kontatuko dugu. Gomendatzen dugu Koli irudikatuko duen panpina txiki bat egitea, ikasgelan denboraldi batez jartzeko.

- Kontatu “Koliren bidaia” ipuina era elkarreragilean: Istorioa kontatu ahala, erabili Koliren panpina, zertarako eta mapa edo lur-globo batean “bidaiatzeko”, bidaiaren tarte bakoitza non egiten den adierazita (Kongoko Errepublika Demokratikoa, teknologia lantegia, gailua erabili eta bota den lekua eta, azkenean, birziklapen zentroa).

Galdetu ikasleei: "Zuen ustez, zer sentitzen du Koli bere bidaiaren etapa bakoitzean?"

2. Rolen joko: Koliren bidaia birsortzen

- Banatu ikasleak taldetan, eta talde bakoitzak Koliren bidaiaren etapa bat antzeztuko du:
 1. **Kongoko EDko koltan meategia:** Talde batek mineral erauzketa antzeztuko du.
 2. **Teknologia lantegia:** Beste talde batek gailu elektronikoaren sorkuntza antzeztuko du.
 3. **Kontsumitzaileak:** Hirugarren taldekoak gailu elektronikoak erabiltzen dituzten pertsonak izango dira.
 4. **Birziklapen zentroa:** Azken talde batek birziklapen arduratsua antzeztuko du.
- Talde bakoitzak bere "agertokia" sortu beharko du, Koli igartzeko moduko maketa edo toki txiki bat eginez. Koli (panpina) agertoki bakoitzetik igarotzen den neurrian, taldeek azaldu beharko dute zer gertatzen den etapa horretan eta gogoeta egin etapa bakoitzaren inpaktu onuragarriez eta kaltegarriez.

3. Super-heroien erronka: Salba dezagun Koli

- Talde guztiek Koliren bidaia antzeztutakoan, banatu "Super-heroiaren botereak" izeneko txartelak ikasleei. Txartel bakoitzean, Koliri eta planetari laguntzen dioten ekintzak daude jasota. Esate baterako:
 - Mugikorak eta tabletak birziklatzea.
 - Gailuak konpontzea, bota ordeztu.
 - Gailuak luzaroago erabiltzea mineral eskaria murrizteko.
- Ikasleek pentsatu beharko dute nola erabili beren "super botereak", Koliri eta planetari laguntzeko. Antzezpen txikiak egin ditzakete edo, bestela, ideiak ozenki azaldu eta trukatu.

4. Super-heroien eginkizuna: Koli konpromisoa

- Ikasle edo talde bakoitzak bere "Koli konpromisoa" sortu beharko du, hau da, beren eguneroko bizitzan egin dezaketen ekintza sinple bat baliabideak eta planeta zaintzeko. Esate baterako:
 - Gailuetarako babes zorroak erabiltzea.
 - Lagunei eta etxekoei birziklapenaren garrantzia erakustea.
 - Gailu teknologikoak ongi zaintzea eta denbora gehiagorik erabiltzea.
 - Kontsumo modu alternatiboak: gailu erabiliak edo birmoldatuak erostea (adibidez, Backmarket) edo telefonoak, hala nola Fairphoneak.
- Konpromisoak idatzi eta kartoi meheetan apaindu daitezke, ikasgelako horma-irudi batean parartzeko. Horrela, "Planetako Super-heroien Horma" sortuko dugu.

5. Norberaren gogoeta:



Ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian" jasoko dute ikasitakoa, bai eta beren konpromisoa ere.

AMERIKA

EL SALVADOR



LURRETIK PLATERERA

Jarduera honetan, ekoizpen lan jasangarrien ezarpena sustatu eta ikasleak praktika jasangarriak egitera eta naturarekin bat bizitzera bultzatu nahi ditugu.

12. GJH -EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK



Afrika

HELBURUAK



- Agroekologiak eta elikadura-burujabetzak herrientzako duten garrantzia ulertzea, elikadura osasungarria eta jasangarritasuna sustatuz.
- El Salvadorko eta Nafarroako landa biztanleriaren testuingurua ezagutzea, bai eta elikagaien autokudeaketaren garrantzia ere.
- Tokiko eta hurbileko kontsumoaz hausnartzea.

MATERIALAK



- Ontzi birziklatuak (jogurt ontziak, ur botilak...).
- Lorontzietarako lurra (poltsa txiki bat).
- Nafarroako jatorrizko landare-haziak (adibidez, babarrunak edo zainzuriak).
- Nafarroako eta El Salvadorko elikagai tradizionalen irudiak.
- Nafarroako eta El Salvadorko mapak.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Introducción al tema

Hasteko, azaldu zer den agroekologia eta elikadura-burujabetza, nekazaritzan zer landa eremutan aritzen diren adierazita El Salvadorko mapan. Azaldu artoa funtsezko elikagaia dela El Salvadorren, eta landa komunitateek artoa landatzen dutela, printzipio agroekologikoei jarraikiz.

Gero, azaldu elikadura-burujabetza kontzeptua Nafarroari lotuta, tokiko elikagaiak kontsumitzearen garrantzia nabarmenduta, hala nola babarrunak, zainzurias eta orburuak. Azaldu tokiko elikagai horiek ere praktika jasangarriak eginez landatu daitezkeela, elikadura-burujabetza sustatuta.

* **elikadura-burujabetza:** herriek duten eskubidea elikagaiak ekoiztu, banatu eta kontsumitzeko, beren politika eta estrategia jasangarriak zehazte eta kontrolatze aldera, oinarri harturik ekoizpen txiki eta ertaina; ez, ordea, agroextraktibismoa.. Oreka eta ingurunearekiko eta ingurumenarekiko errespetua lehenesten ditu. Kudeaketa molde horren helburua da mahaira daramatena erabakitzeko eta kontrolatzeko gaitasuna itzultzea kontsumitzaileei, kontsumitzaileen erabakia nekazaritzako eta industriako ekoizle handien eta interes ekonomikoen gainetik egon dadila. Xedea da eskualde edo komunitate baten burujabetza beste herrialde batzuetako elikagaien ekoizpenaren mende ez egotea.

Amerika

Asia

Europa

Ozeania

Antartika

Azaldu nola laguntzen dieten praktika horiek komunitateei elikagai osasungarriak izaten eta ingurumena babesten:

*Imajinatu gure herrialdea lorategi handi bat dela, eta bertan, pertsona guztiok elkarrekin lan egiten dugula landareak, animaliak eta lurra zaintzeko. **Agroekologia** naturaren lagunik onenak izatea bezala da, hau da, gure elikagaiak gure ingurunea kaltetu gabe lantzen ikasiz, gai kimiko gutxiago erabiliz eta gure planeta gehiago zainduz.*

Orain, pentsatu gustatzen zaizkigun fruta, barazki eta elikagai guztiez betetako altxor-kutxa batean. Elikadura-burujabetzaren bidez, ziurtatu behar dugu altxor-kutxa hori beti bete egotea, eta den-denek elikagai goxo eta elikagarri horiek jan ahal izatea, horrelako elikagaiak beste herrialde batzuetatik ekarri behar izan gabe kutxa betetzeko. Azken finean, esan nahi du badugula ahalmena zer jan nahi dugun eta gure janaria nork eta nola lantzen dugun erabakitzeke, beti denontzako adina izan dezagun eta gure eta lurraren osasuna ez kaltetzeko.

El Salvadorren jende askok lan egiten du egunero nekazaritzan agroekologia erabiliz, altxor-kutxa hori elikagai osasungarri bezala betetzeko.


2. “Lurretik platerera”

Hazi baten bidaiari buruzko prozesua kontatuko diegu, hau da, lurrean ereiten denetik mahai gaineko elikagai bat bihurtzen den arteko prozesua. Azalduko dugu, halaber, zeinen garrantzitsua den landareak zaintzea praktika agroekologikoak erabiliz (gai kimiko kaltegarriak erabili gabe, konposta erabiliz, etab.), eta nola hori ona den elikadura-burujabetza eta elikadura osasungarria bultzatzeko. Hasierako azalpenari jarraipena emateko.

Hazi baten bidaiaren prozesua

1. **Ereintza:** Dena hasten da hazi bat lurrean ereiten dugunean. Tokian tokiko haziak aukeratuko ditugu, hau da, gure klimara eta lurrera egokituak daudenak, gai kimikorik behar ez dutenak hazteko. Hori garrantzitsua da gure ingurumena zaintzeko.
2. **Ernamuintzea:** Behar bezala zainduz, urarekin eta eguzki-argiarekin, hazia ernamuintzen hasten da. Sustrai txiki bat atera eta lurrari finkatuko zaio, eta eguzki bila dabilen kimu bat ere bai. Une hori funtsezkoa da, landare gazteak babesa behar duelako belar gaiztoen eta izurrien kontra, baina era naturalean babesteko dugu, hau da, gai kimiko kaltegarriak erabili gabe.
3. **Hazkuntza:** Landareak hazten jarraitzen du, eta hosto eta zurtoin gehiago garatzen. Agroekologian hainbat teknika erabiltzen dira landarea eta lurra elikatzeko, hala nola labore txandaketa eta gai organikoarekin ongarritzea (janari hondarrak, etab.), bizitza-ziklo osasungarria eta jasangarria sustatuz.
4. **Loratzea eta Polinizazioa:** Bere garaian, landarea loratuko da eta, polinizazioaren bidez, erleei eta gisako intsektuei esker, fruituak edo pikorrak sortuko dira.
5. **Uzta:** Fruituak edo pikorrak onduak daudenean, uztaren garaia helduko da. Hori lan komunitarioa da eta pertsona guztiek parte hartu dezakete.
6. **Elikagai prestaketa:** Azkenik, elikagaia garbitu eta, behar izanez gero, prozesatuko dugu; ondotik, sukaldean prestatuko dugu gure janaria izan dadin.

Urrats honek gogora ekartzen digu zeinen garrantzitsua den elikadura-burujabetza, komunitateek elikagai osasungarriak eskuratzea baitu xede, komunitate bakoitzaren kulturarekin bat, kontsumo praktika arduratsuak eta tokikoak sustatuz.



3. “Artotik zainzurira” alderaketa

Azaldu artoak El Salvadorren egiten duen bidaiari buruzko prozesua eta zainzuriak Nafarroan egiten dutena, praktika agroekologikoak nabarmenduz eta nola labore bakoitza funtsezkoa den, zein bere testuinguruan.

- **Artoa El Salvadorren:** Azaldu artoa nola landatu, hazi eta kontsumitzen den, hainbat janari nabarmenduta, hala nola pupysas, opilak, tamales de elote, riguas, chilate, El Salvadorko pasteltxoak... Komeni da azaltzea herri horiek ez dituztela hain erraz eskura beste pikor eta elikagai batzuk eta, horregatik, artoa hamaika modutan prestatzen dela.

* *Arto laborantza oso hedatua dago El Salvadorren, landatzea erraz samarra eta merkea delako. Landare hori erresilientea da hainbat klima-baldintzatan, eta hainbat lurzoru motatan hazten da; beraz, ezin hobea da bai nekazari txikientzat bai arto-sail handietarako. Artoak, gainera, beste labore batzuek baino lan gutxiago behar du; horregatik da ekonomikoki bideragarria eta, ondorioz, El Salvadorko nekazari guztien eskura dago*

- **Zainzuria Nafarroan:** Azaldu zainzuriaren zikloa, hau da, nola landatu, hazi eta biltzen den. Egizu plater tipikoen zerranda, hala nola zainzuriak urdaiazpikoarekin edota entsaladak zainzuriekin.

Eztabaidatu ikasleekin hurbileko elikagaiak kontsumitzeko garrantziaz eta tokiko elikagaiak aukeratzea ona dela karbono azterna murrizteko eta ingurunea babesteko.

4. Tokiko gure haziak landatzen

Artoa landatu beharrean, ikasleek babarrun edo zainzuri hazi bat ereingo dute, edo Nafarroako beste edozein labore tipikoren hazi bat. Erakutsi Nafarroako elikagai tradizionalen irudiak eta galdetu nola sentitzen diren beren ingurunean hazten den zerbaite landatzean. Azaldu jendeak El Salvadorren artoa landatzen duela, eta, Nafarroan, beriz, tokiko baldintzekin eta elikagaien kulturarekin bat datozen produktuak ereiten direla.

5. Talde eztabaida eta gogoeta

Jarduera bukatzeko, egizu denen arteko eztabaida ikasitakoaz. Galdetu ikasleei nola aplikatu daitezkeen beren komunitateetan agroekologia praktikak eta elikadura-burujabetza. Hausnartu tokiko produktuak aukeratzea ona izan daitekeela hala jendearentzat nola ingurumenarentzat.

Eztabaidarako galderak:

- Zer onura dakartza gure bizilekutik hurbil ekoizten diren elikagaien kontsumoak?
- Zertan dira desberdin, eta zertan berdin, El Salvadorko arto laborantza eta Nafarroako laboreak?
- Nola aplikatu dezakegu elikadura-burujabetza gure eguneroko bizitzan?

6. Norberaren gogoeta



Ikasitakoa jasoko dute ikasleek pasaporteko “bidaia egunkarian” eta, halaber, idatziko dute zeinen garrantzitsua den tokiko produktuak kontsumitzea eta zer egin dezaketen beren komunitatean elikadura-burujabetza sustatzeko.

EL SALVADORKO EMAKUME AITZINDARIAK

Jarduerak El Salvadorko emakumeen ekarpenak nabarmentzen ditu, hainbat arlotan hesiak hautsi dituztelako, rol tradizionaleri aurre eginez eta genero berdintasuna sustatuz. Emakumeen lorpenak aintzat hartuz, jarduerak ekitatearen garrantzia azpimarratzen du, hori ere inspirazio-iturria baita etorkizuneko belaunaldientzako, emakumeen egiazko eskubideen eta pertsona guztientzako aukera berdintasunaren aldeko borrokan jarrai dezaten.

5. GJH - GENERO BERDINTASUNA



HELBURUAK



- El Salvadorko emakumeek gizarteko hainbat arlotan duten funtsezko eginkizuna ezagutu eta aintzat hartzea.
- Hainbat arlotan lan eginez gizartearen garapena bultzatzen duten emakume erreferenteak sortzea.
- Genero berdintasuna eta errespetua sustatzea, bai eta gizarteko kide guztiek egindako ekarpenen gaineko mirespena ere.

MATERIALAK



- Kartoi mehea, zatar-papera eta margoak.
- Guraizeak, itsasgarriak, markatzaileak.
- El Salvadorko emakumeen istorioak eta irudiak (I.A: eranskina).
- Jarrera hartzearen dinamikarako galderak (I.B. eranskina).
- Koloretako zintak.
- Girotzeko musika instrumentala.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Sarrera elkarreragilea:

Aurkeztu El Salvadorko emakume aitzindari aukeratuak (deskribapen osoak eta argazkiak I.A. eranskinean). Hona hemen hainbat adibide:

- **Claudia Lars** (1899-1974), olerkari ospetsua, lirismoan eta metrikari nabarmendua, El Salvadorko literaturari ekarpen handia egindakoa.
- **Prudencia Ayala** (1885-1936), gizarte ekintzailea, El Salvadorko lehen presidente gai emakumezkoa, emakumeen eskubideen aldeko borrokan aritua.
- **María Isabel Rodríguez** (1922), medikuntzan graduatu zen lehenetariko emakumea El Salvadorren, osasun ministroa zelarik ekarpen nabarmena egindakoa.
- **Isabel Dada**, (1941-2017) El Salvadorko lehen aktore handitzat jotzen da.
- **Morena Celarié** (1922- 1972), profesional ospetsua eta herrialdeko dantza folklorikoaren

dibulgatzailea. Folklore cuscatlecoaren ama izan dela esaten da, lurraldean utzitako arte eta kultur ondarea dela eta.

- **Cristina Esmeralda López** (1982), El Salvadorko kirolaren inoizko atletarik onenetakoa da.

Gomendagarria da irudiak eta bideo laburrak erabiltzea. Bukatzeko, egizu “quiz azkarra” motako jarduera labor bat, talde bakoitza saia dadin asmatzen zer emakumeri dagokion lorpen edo datu bakoitza.

2. “Inpaktuzko buru-hausgarria” jolasa

Banatu ikasleak talde txikitan eta eman talde bakoitzari emakume aitzindari baten papera. Talde bakoitzak, buru-hausgarri bateko piezak dituen gutun-azal bat jasoko du, hau da, egokitu zaien emakumearen irudia. Buru-hausgarria muntatu baino lehen, piezak irabazi beharko dituzte, erronka txikiak eginez.

Erronkak:

- o Emakume aitzindarien bizitzari buruzko galderak erantzun.
- o Emakumearen ezaugarriak bere ekarpenekin lotu (adibidez, “Nola lagundu zuen Claudia Larsen poesiak emakumeak ahalduntzen?”).
- o Koloretako zintak edo etiketak jarriko ditugu denbora-lerro batean emakumeen lorpenak irudikatzeko (gako hitzak erabil ditzakete, hala nola “poesia”, “politika”, “osasuna”).

Behin taldeak pieza guztiak irabazi dituenean, buru-hausgarria muntatu eta hurrengo urratsari helduko diote.

3. “Ekarpen Bideak”

Buru-hausgarria muntatu eta gero, talde bakoitzak kartoi mehe bat jaso eta “ekarpen bide” bat sortu beharko du eta, bertan, emakume aitzindariaren bizitzaren mugari garrantzitsuak marraztu edo idatziko dituzte; halaber, marrazkien edo gezien bidez elkarren artean lotuko dituzte, zertarako eta emakume haien ekintzek gizartean nolako eragina izan zuten adierazteko. Bideak bisualki irudikatuko du haien ekarpenek aukerak ireki zituztela beste emakume batzuentzat.

Gero, talde bakoitzak bere “Ekarpen Bidea” aurkeztuko die gainerako ikaskideei, emakume horrek hesiak hautsi eta gizartea aldatu zuela azalduz.

4. Jarrera hartzearen dinamika

Antolatutako eztabaida saio txiki bat, gako galderen bidez (I.B. eranskina). Ikasleak ikasgelako hainbat tokitan jarriko dira, gorputzaren bidez galderari erantzuteko. Honatx galderak:

- o “Nork uste du emakumeek aukera gehiago izan beharko lituzketela politikan? Zoazte ikasgelako ezkeraldera.”
- o “Nork uste du gizonen eta emakumeen aukera berberak izan beharko lituzketela kirolean? Zoazte eskuinaldera.” Horrek mugimendu fisikoa eta pentsamendu kritikoa lantzeko dinamika bat eragiten du.

5. Itxiera: Sormenezko role-play:

Talde bakoitzak antzezpen txiki bat sortuko du bere emakume aitzindariaren funtsezko une bat antzezteko. Beraz, antzezan txiki bat, elkarrizketa bat edo poesia antzeztu bat egingo dute. Jantziak edo osagarri txikiak ematen ahal zaizkie jarduera are ludikoagoa izateko.

6. Norberaren gogoeta



Ikasitakoa jasoko dute ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian", gehien inspiratu dituen emakumeari buruz idatziz eta zer ekintza egin ditzaketen beren komunitatean, emakumeak utzitako ondareari jarraipena emateko.

ASIA

TXINAKO HERRI ERREPUBLIKA



TXINAKO ERRONKA HANDIA

Jarduerak kontsumo eta ekoizpen jarraibide jasangarriak sustatu nahi ditu. Ekintza erronken bitartez, ikasleek ikasiko dute zeinen garrantzitsua den birziklatzea, berrerabiltzea, beharrezkoa ez den kontsumoa murriztea eta alternatiba jasangarriagoak hobestea beren eguneroko bizitzan.

11. GJH - HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



12. GJH - EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK



HELBURUAK



- Pertsonen eta ingurumenaren ongizatea lehenestea duen garrantziaz gogoeta egitea, garapen ekonomiko neurrigabearen aurrean.
- Kontsumismo kontzeptua eta hark ingurumenean duen inpaktua azaltzea.
- Arazoek mundu mailan lotura dutela eta horrek gure kontsumo moldeetan duen ondorioa ulertzea.
- Ikasleengan eta haien hezkuntza erkidegoan ekintza onuragarriak eragitea etorkizuna jasangarriagoa izan dadin.

MATERIALAK



- Quiz jokoko galdera eta erantzun txartelak..
- Erantzuna adierazteko txirrin edo gauzaren bat.
- Puntuaren kontuan eramateko arbela.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Sarrera:

- a. Azaldu labur jolasaren xedea: Txinak ekonomikoki haztearen erronkari nola egiten dion aurre ulertzea, ingurumena babesten eta kontsumismoa kontrolatzen duen bitartean.
- b. Banatu ikasleak talde txikitan.

Gaur, jolas oso berezi batean arituko gara. "Txinako Erronka Handia" du izena.

Txina oso herrialde handia da, jende asko bizi da eta hiri asko ditu. Ospetsua da, guk egunero erabiltzen ditugun gauza asko egiten dituelako; adibidez, jostailuak, arropa eta telefonoak. Baina, gauza horiek guztiak egiteak eta hain hiri handiak eraikitzeak kutsadura handia eragiten dute: airea, ura eta lurra zikintzen dira eta, horrek kalte egiten die animaliei, landareei eta pertsoneri.

Gainera, hainbeste etxe egiteko, pertsona asko aritzen dira lanaldi luzeetan, lan baldintza duinak gabe.

Txinak hazten jarraitu nahi du, bai eta hirien hazkundera eragiten ere, horrek herrialdeari dirua dakarkiolako. Baina, ona al da hori jende guztiarentzat? Eta ingurumenarentzat? Planeta zaindu behar dugu, eta ziurtatu, ez ditugula kontsumitzen behar baino gauza gehiago, lurra ez kaltetzeko. Hori zail samarra izan

daiteke, ezta?

Jolas honetan saiatuko gara Txinan soilik sor daitezela pertsonentzako beharrezkoak diren produktuak eta hori egin dadila ingurumenari kalterik eragin gabe (ura, airea, lurra...) eta pertsonen eskubideak errespetatuta.

Afrika

Amerika

2. Quiz

- Egin galderak txandaka taldeei. Zuzen erantzundako galdera bakoitzak puntu bat ematen du. (II. A. eranskina)
- Are elkarreragileagoa egite aldera, erabili "ekintza erronkak" (II.B. Eranskina) galdera batzuen artean. Horiek bi puntu balio dezakete (2 puntu).
- Mantendu puntuazioa arbelean edo panel handian.
- Puntuen egitura: Taldeak puntuak lortu nahirik soilik lehian aritu beharrean, helburu bat ere jar dezakezu denentzat; hau da, ikasle guztiek batera puntuak bildu ditzatela halako erronka global bat "moldatzeko". Adibidez, denen artean 15 puntu eskuratzen badituzte, "Txinako kutsadura murriztea lortuko dute", sinbolikoki bada ere. Horrek elkarlana sustatzen du eta, era berean, ingurumeneko arazoak guztioi dagozkigun erronka direlako ideia, bai eta denon arteko ahalegina behar dela ere.

3. Talde gogoeta

Egizu eztabaida ikasitakoaz, ikasleei galdetuz haien iritziz nola aplikatu daitezkeen eguneroko bizitzan jasangarritasunari eta kontsumo arduratsuari buruz ikasi dutena. Hona hemen gogoeta gidatzeko galdera batzuk: Erabiltzen ditugu soilik egunerokotasunean behar ditugun gauzak? Egizu etxean dituzun baina egiazki behar ez dituzun 10 gauzaz osaturiko zerrenda. Gauzak berrerabiltzen ditugu eta behin erabilitakoan botatzen ditugu? Botatzen ditugun gauzak birziklatzen ditugu? Gure produktu asko Txinatik datoz? Nola lortuko dugu Txinak hainbeste gauza ez ekoiztea?

Asia

Europa

4. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian" jasoko dute ikasitakoa.

Ozeania

Antartika

IBILBIDE HEZIGARRIAK: AMETSAK ETA ERRONKAK TXINAKO ESKOLAN

Jarduera honetan, hiri- eta landa-eremuetako hezkuntza-esperientziak mintzagai izatean eta alderatzean, ikasleen enpatia eta desberdintasunen gaineko ulerkuntza sustatuko dira. Era berean, aurreikusiko da nola bultzatu ditzaketen berdintasuna hezkuntzan sustatuko duten proposamenak.

4. GJH - KALITATEZKO HEZKUNTZA



HELBURUAK



- Txinako landa- eta hiri-eremuen arteko hezkuntzan diren desberdintasunez hausnartzea.
- Hezkuntza eskuratzeko diren oztopoei eta aukerei buruzko pentsamendu kritikoa sustatzea.
- Enpatia eta pentsamendu kritikoa sustatzea.
- Behar diren ekintza proposamenak garatzea hezkuntzan diren desberdintasunei aurre egiteko.

MATERIALAK



- Txinako landa- eta hiri-eremuetako ikasleen bizitzari buruzko argazki, bideo eta istorioak.
- Papera, kartoi meheak eta margoak edo errotulagailuak.
- Txinako "fikziozko ikasleen" gaineko deskribapenak dakartzaten txartelak (III.A. eranskina). Testu zifratuak (III. B. eranskina).
- Txinako mapa.


JARDUERAREN GARAPENA



1. Sarrera eta testuinguruan kokatzea:

Hasteko, egizu Txinari buruzko azalpen laburra, bertako geografia mapan erakutsiz, bai eta hango eta hemengo biztanleria dentsitatea ere. Azaldu funtsezko informazioa bertan diren desberdintasunei buruz, hala nola hezkuntza azpiegituretan, teknologia eta baliabideak eskuratzeko tenorean, eta oinarrizko eta bigarren hezkuntza bukatzen dituztenen tasetan dagoen arrakala.

Azaldu labur 4. GJH, hots, jende guztiarentzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatzea xede duen helburua. Lotu helmuga hori Txinan diren desberdintasunekin; bereziki, urrutiko eskualde baztertuetan direnekin.



Komenigarria izan daiteke landa- eta hiri-eremuetako eskolen irudiak erakustea, agerian diren aldeez eztabaidatzeko, eta nola eragin zezaketen haurren hezkuntza esperientziek.



2. 1. jarduera: Ikasle arrunt baten istorioa

- Banatu ikasleak talde txikitan eta eman talde bakoitzari Txinako haur baten fikziozko profila duen txartela (III.A. eranskina).
- Talde lana: talde bakoitzak eztabaidagai izango du jaso duen pertsonaiaren egoera. Nolako da haren eskola eguna? Zer erronka eta zer aukera ditu? Gero, talde bakoitzak ideia horiek kartoi mehe edo poster batean irudikatu beharko ditu, bere pertsonaiaren historia deskribatzen duten marrazki, hitz edo diagramekin.
- Istorioen aurkezpena: beren pertsonaiak gainerako ikaskideei aurkeztuko dizkiete. Aurkezpena egin bitartean, markatu Txinako mapan non bizi den haietako bakoitza. Ikasleek galderak egin ditzakete eta pertsonaien arteko desberdintasunei buruz hausnartu.
- Nola hobetuko dugu? Talde guztiek aurkezpena egindakoan, egin galdera hau taldeari: Zer lotura egin ditzakegu istorio horien artean? Nork du bere ametsak betetzeko aukera gehien eta zergatik? Talde bakoitzak hezkuntza-errealitate horien egoera hobetzeko irtenbideak irudikatu beharko ditu. Hezkuntzan berdintasuna hobetzea xede duen edozein ekintza proposatu beharko dute (adibidez, hezkuntza baliabideak partekatzea, irakasleen prestakuntza, teknologia, etab.).

3. 2. jarduera: Eskolara bitarteko bidea

Komeni da ikasleak taldeetan banatzea. Ikasleei esango diegu ikasle berriak iritsi direla hirira eta eskolara etorri nahi dutela, baina ez dakite iristen.

Talde bakoitzari testu bat emango zaio helbidearekin.

Talde bakoitzaren helburua izango da eskolara iritsi ahal izateko jarraibideak jasotzen dituen mapa bat marraztea. Horretarako, testu bat deszifratu behar dute, eta behin hori egindakoan, bidea kolorez markatu beharko dute. Testu bakoitzak zailtasun desberdina du bere zifratze moduan, eta taldeen arteko desberdintasun argiak markatzen ditu. (III. B. eranskinean, Iruñean kokatutako testua erantsia dago, baina irakasleek beste herri batzuetara egokitu dezakete).

Zati hau amaitzen denean, galdera batzuk egingo ditugu:

- Zergatik amaitu dute talde batzuek besteek baino lehenago? Nork amaitu du lehenbizi? Eta azkena? Zergatik?
- Zer iruditzen zaizue batzuek besteek baino testu ulergarriagoa izatea?
- Nola sentitu zarete?

4. Gogoeta gidatua

Gidatu hezkuntza eskuratzeko dauden desberdintasunei buruzko talde hausnarketa. Haur batzuek besteek baino erraztasun gehiago dituzte. Galdetu nola sentitzen diren desberdintasun horiek direla-eta, eta ekarri gogora landutako ikasle ereduen egoerarekin. Nabarmendu ikasle guztiei laguntzearen garrantzia, non bizi diren alde batera utzita, beren ametsak lor ditzaten

5. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian" jasoko dute ikasitakoa.

EUROPA

ITALIA



ARTEA ETA KOMUNITATEA: TURISMO ARDURATSUAREN ERRONKA

Jarduera honetan, leku historikoen, artelanen eta kultur ezaugarrien balorazioa eta babesaren izango ditugu ardatz, turismo masiboak eta hirien hazkundeak dakartzaten ondorio kaltegarriekin kontrajarrita.

11. GJH - HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



HELBURUAK



- Turismo masiboak Italiako tokiko komunitateetan eta kultur ondarean dituen eraginei buruz hausnartzea
- Kultur turismoa eta turismo arduratsua kontzeptuak ikertzea, pertsonak eta ingurumena errespetatuz.
- Turismo masiboaren ondorio kaltegarriak buruz kontzientziatzea eta alternatibak edo konponbideak sor daitezela bultzatzea.
- Sormena eta adierazpen artistikoa sustatzea, hiriek eta komunitate turistikoek aurre egin beharreko arazoei irtenbideak bilatzeko.

MATERIALAK



- Italiako mapa.
- Italiako monumentu eta artelanen irudiak eta ohiko hiri-eszenak.
- Eskola materialak (papera, margoak, plastilina, etab.).
- Hiriei eta monumentuei buruzko informazioa (I.A. eranskina).
- Turistifikazioari eta hark gizartean eta ingurumenean dituen inpaktuei buruzko datuak biltzen dituzten informazio orriak (IV.B eranskina).

JARDUERAREN GARAPENA



1. Sarrera

Hasteko, azaldu zer diren kultur turismoa eta turismo arduratsua, Italia helmuga ikonikoa dela azpimarratuta, bertako aberastasun artistiko eta monumentala dela eta.

Bideo hau ikustea gomendatzen da:

www.youtube.com/watch?v=ATZpmfkTU9o (Add Visual Works, 2019)



- Funtsezko galderak:
 - Zer da turismoaren alde onuragarria hiri batentzat?
 - Zer arazo sozial sor ditzake turismo masiboak tokiko bizilagunetan?
 - Nortzuek ateratzen diote etekina egiazki turismoari hiri historikoetan?

Turismoa eta desberdintasuna: Azaldu turismo masiboak desberdintasunak areagotu ditzakeela Italiako hirietan, bertako bizilagunek askotan zailtasunak izaten baitituzte, hala nola alokairuen igoera, tokiko zerbitzuen galera eta gentrifikazioa. Lotu ideia horiek beste errealitate pobretu batzuekin, globalizazioa eta turismoa Iparraldearen eta Hegoalde globalaren arteko desberdintasun dinamikekin lotuta daudela hausnartuz.

Jasangarritasuna eta justizia soziala: Azaldu hiri eta komunitate jasangarrien kontzeptua, eta halaber, turismo bidezkoago batek kontuan hartu behar duela pertsonengan duen eragina, ez bakarrik ondarean duen eragina. Turismoak justizia soziala eraikitzeke tresna izan behar du, ez desberdintasuna areagotzeko tresna.

Azaldu laburki zer den **turismo kulturala**, eta Italia jomuga ospetsua dela arte, historia eta monumentuetan duen aberastasunagatik.

Turismo kulturala hainbat lekutako tradizioak, arteak, historia eta ondarea ezagutzeko eta esperimentatzeko egiten den bidaia mota bat da. Ez da gauzak ikuste hutsa, baizik eta giza sormenak denboran zehar sortu dituen bizimodu, ideia eta adierazpenekin ikastea eta haiekin konektatzea.

Turismo mota garrantzitsua da, munduko kultur aniztasuna ulertzen eta estimatzen laguntzen digulako. Erakusten digu nola bizi izan diren beste pertsona batzuk, zer baloratu duten eta nola adierazi dituzten beren pentsamenduak eta emozioak artearen eta arkitekturaren bidez. Turismo kulturala ere eragingarria izaten ahal zaigu leku eta tradizio horiek babestu eta zaindu ditzagun, etorkizuneko belaunaldiak haien bidez ere ikasteko aukera izan dezaten.

Italia berezia da benetan turismo kulturalarentzat eta horren arrazoiak da historia oso luze eta liluragarria duela, eta gauza ederrak sortu dituzten talentu handiko pertsona askoren etxea izan dela. Beraz, Italia bisitatzen dugunean, leku politak ikusteaz gain, historiari eta arteari buruz ere ikasten dugu, eta istorio eta sorkuntza-lan horiek gure bizitzaren parte izaten jarraitzen dute gaur egun.

- Egin honakoak bezalako galderak: Zure ustez, zer onura dakartza turismoak hiri horietara? Zer eragin kaltegarri izan litzake turismoak leku horietan, bertako bizilagunengan edo haien kulturen?

Esan dugun bezala, turismoa egiteak beste pertsona, kultura eta bizimodu batzuk ezagutzeko aukera ematen digu. Baina, era berean, oso kaltegarria izaten ari da jendearentzako bidaia-gune interesgarri bihurtu diren hiri askorentzat. Pertsona askok bidaiatu baino ez dute egiten, egun batzuk bizi dira hiri horretan, eta alde egiten dute, kultura eta bertan bizi diren pertsonak benetan baloratu eta ezagutu gabe. Askotan ez dute kontuan hartzen jendea bizi dela paseatzen duten kaleetan, bertakoek hiri garbia behar dutela eta paseatzeko leku lasaiak. Garrantzitsua da leku batera bidaiatzen dugunean pentsatzea eta galdetzea nola jokatu behar dugun, lurralde horretako pertsonen bizimoduari kalterik ez egiteko edo haien bizimodua ez eragozteko.

Turismoak sor ditzakeen eragin kaltegarriak aztertzea proposatzen da. Kalteen zerrenda bat dago IV. B. eranskinean. Zerrenda ikasgelan azaldu daiteke edo ikasleei datuak eman, ondorengo jarduerara errazteko.

2. Bidaia birtuala hiri historikoetara

Monumentuen esplorazioa: Erakutsi Italiako monumentu eta hiri-paisaien irudiak (IV.A eranskina) eta azaldu labur bakoitzaren historia, haietako bakoitza mapan kokatuta. Beste aukera bat Internet sarbidea duten gailu digitalak eskaintzea izan daiteke, ikasleak Google Mapsen bidez monumentuz monumentu ibiltzeko. Lotu monumentu bakoitza turistikazioarekin zerikusia duten arazoekin.

Talde lana: Banatu ikasleak talde txikitan eta eman talde bakoitzari Italiako hiri bat edo monumentu ospetsu bat (adibidez, Venezia, Florentzia, Erroma). Talde bakoitzak aztertuko ditu turismo masiboak hiri horretan eragiten dituen ondorio kaltegarriak (kutsadura, gentrifikazioa, tokiko nortasunaren galera) eta nola murriztu litezkeen horrelako inpaktuak ikuspegi bidezkoago eta jasangarriagoen bidez.

3. Sormen Geltokia

Hiru lan egin beharko dituzte

1. Informazio orria irakurri.
2. Aztertu zer arazo erator daitezkeen turismotik.
3. Informazio kartel bat, iragarki bat edo publizitate-spot bat egin, sormenezko irtenbide bat proposatzeko, turismoak kasuan kasuko lekuan edo artelanean eragin kaltegarriak sor izan ez dezan.

4. Aurkezpena eta talde gogoeta

Talde bakoitzak kasuan kasuko lekuaren jasagarritasuna hobetzeko bere sorkuntza-lana eta bere ideiak aurkeztuko ditu. Bukatzeko, talde gogoeta egingo dute turismo kulturalak duen garrantziaz, eta nola laguntzen digun maitatzen eta zaintzen kultura guztietako historia eta artea.

5. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian" jasoko dute ikasitakoa.

ITALIAKO ALTXORREN ZAINZAILIAK

Jarduera honetan, leku historikoen eta artelanen babesa izango dugu ardatz turismoak eta hiri garapenak dakartzaten ondorio kaltegarrien aurka.

15. GJH - LEHORREKO EKOSISTEMEN BIZITZA



HELBURUAK



- Turismo masiboak Italiako ekosistemetan eta kultur ondarean duen eraginaz sentsibilizatzea.
- Ingurumena eta ondare historikoa errespetatzea, jasangarritasunez jokatzuz.
- Tokiko ingurunean irtenbide jasangarriak aplikatzeko gogoeta- eta ekintza-trebetasunak garatzea.
- Aldaketa-eragile bihurtzea, ikaskuntzak ikasleen hurbileko errealitatera ekarriz.

MATERIALAK



- "Misio Jasangarria" txartelak (V.A eranskina).
- Galdera txartelak (V.B eranskina).
- Koloretako gometsak.
- Azken hausnarketetarako arkatzak eta koadernoak.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Sarrera

hasteko, azaldu labur Italia bezalako herrialde aberastuetan jasangarritasunak dituen erronkak, turismo masiboak Venezia, Florentzia eta Erroma eta gisako hiri ikonikoetan duen eragina azpimarratuta. Azaldu "turismo arduratsua" kontzeptua, baita ondare historikoa eta natur ingurunea zaintzearekin duen lotura ere.

- Galdetu taldeari: Zer ondorio izan ditzakete monumentu, naturgune eta hiri historikoetara egiten diren bisita masiboek?

2. Jolasaren dinamika

Helburua ikasleak, taldeetan, "Ondarearen eta Naturaren Zaintzaile" bihurtzea izango da, ekosistemak eta Italiako kultur ondarea babesteko erronkak moldatuz. Misio bakoitzak Italia jasangarriagora hurbilduko ditu!

3. Jolasaren dinamika

1. fasea – taldeak osatzea:

Banatu ikasleak 4-5 pertsonako taldetan eta eman bakoitzari kolore bat (aurrerago erabiliko dituzten gometsekin). Talde bakoitzak “misio lider edo gidari” bat aukeratuko du, eta liderrak txartelak atera eta gogoeta gidatuko du.

2. fasea – “Misio Jasangarria” txartelak:

Taldeek txandak hartuko dituzte “Misio Jasangarria” txartel bat ateratzeko. Txartel horrek erronka bat dakar, Italiako ingurumen edo kultur arazo bat ekintza jasangarri batekin uztartzen duena (V.A eranskina). Talde bakoitzak 5 minutu ditu ekintza hori bere komunitatean edo eskolan nola ezarriko luketen eztabaidatzeko.

Talde guztiek misio berean parte hartuko dute aldi berean, eta talde bakoitzak bere proposamena labur aurkeztu behar du.

3. fasea – Galdera txartelak:

Misioa bete ondoren, talde bakoitzak Galdera Txartel bat aterako du (V.B eranskina). Txartelok galdera gogoetatsuak proposatzen dituzte, jasangarritasunarekin eta GJHein lotzeko, Italiako egoerari begira. Talde bakoitzak 3 minutu ditu eztabaidatzeko eta erantzunak partekatzeko. Ikasle guztiak, aurkeztu diren ideien eztabaidan aritu daitezke. Txartel horiek oso galdera irekiak dakartzate Italiari buruz, dela bertako jasangarritasunaz, dela GJH helburuez. Galderen bidez gogoeta eragiten saiatuko gara. Txartelaren erantzuna talde handian landu daiteke, behin taldeak bere arrazoibidea azaldu ondoren.

Galderari erantzun ondoren, talde bakoitzak bere koloreko gometsa jarriko du misioarekin lotutako maparen gunean, bere ideien bidez huraxe babesteko gai izan direla simulatuz.

Jolasaren amaiera: jolasa talde guztiek beren misioak eta erronkak bete dituztenean amaituko da. Helburua da ikasle guztiek lagundu izana Italian jasangarritasuna babesten eta sustatzen, mapan jarritako gometsen bidez islatu den bezala.

4. Norberaren gogoeta



ikasleek ikasitakoari buruzko hausnarketa pertsonala idatziko dute beren “bidaia egunkarian”, bai eta eguneroko bizitzan egin dezaketen ekintza jasangarri bat ere.

OZEANIA

AUSTRALIA



ISTORIOAK KONTATZEKO ARTEA

Jarduera honetan aborigenen artean sakonduko dugu. Arte horren bidez, herri indigenen kultur ondare aberatsa eta tradizioak aintzat hartzea sustatzen da, bai eta horrelako kultur adierazpen eta ezaugarriak zaintzearen eta errespetatzearen garrantzia ere.

11. GJH - HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



HELBURUAK



- Australiako aborigenen kultura eta artea ezagutzea.
- Artea kulturen jakintzaren eta bizimoldeen adierazpide bat dela eta kultura jakin bat ezagutzeko bide bat dela ulertzea.
- Kultura aintzat hartzeko eta tradizioak errespetatzeko jarrerak eta balioak eskuratzea.
- Aborigenen artean diren sinbolo eta esanahien gaineko ulerkuntzara hurbiltzea.

MATERIALAK



- Kartoi meheak edo paper lodi zuria.
- Margo akrilikoak edo hatz-margoak.
- Kotoizko makilatxoak, zotzak eta pintzel txikiak puntuen pintura teknikarako.
- Aborigenen artearen adibidezko irudiak

JARDUERAREN GARAPENA



1. Aborigenen artea azaltzea

- a. Hasteko, emazu Australiako aborigenei buruzko azalpen laburra, kultur tradizio aberatsa duten munduko herririk zaharrenak direla nabarmenduta.
- b. Azaldu aborigenen artea irudi hautatuen bitartez, puntuen bidezko pinturaren teknika, haren esanahia eta erabiltzen diren koloreen eta sinboloen garrantzia erakutsita.
- c. Arte hori lurrari, espiritualtasunari eta istorio kontakizunari lotuta nola dagoen eztabaidatzea.

Aborigenen Artearen Kultur Esanahia

Australiako aborigenen artea sakon erroturik dago herri indigenen, haien lurraren eta espiritualtasunaren arteko harreman sakratuan. Artelan bakoitza Ametsaren Denboraren (Dreamtime) adierazpen bat da, munduaren, bere izakien eta bere lege naturalen jatorria deskribatzen duen filosofia konplexu bat. Aborigenen kulturaren muinean dagoen kontakizun horrek azaltzen du nola itxuratu zuten antzinako izakiek paisaia eta nola sortu zuten bizia, aldi berean lege moral eta sozialak ezarrita.

Puntuen Artearen Garrantzia

Puntuen artea aborigenen talde batzuek erabiltzen duten teknika bereizgarria da, batez ere Australiako Erdialdeko Basamortuaren eskualdean. Irudiak eta patroiak sortzen dituzte, koloretako puntu txikiak erabiliz, makilak, hezurak eta gisako tresna natural askotarikoekin aplikatuta. Teknika hori estetikoki ikusgarria izateaz gain, helburu esanguratsu bat ere badu: artelanen barnean mezuak eta esanahi espiritualak ezkutatzea. Puntu-patroiek paisaiaren elementuak irudika ditzakete, edo Loaren Garaiko gertaerak edo ur-ibilbideen eta leku sakratuen mapak; eta jakintza kultural eta espiritual egokia dutenentzat soilik dira irisgarriak.

Puntuen Pinturaren Teknika

Puntuen bidezko pintura teknikan aritzeko, pazientzia eta zehaztasuna behar dira. Artistek kontu handiz aplikatzen dituzte pintura-puntu txikiak mihisearen gainean, elkarrekin istorio bat kontatzen duten edo mundu natural eta espiritualaren alderdiak irudikatzen dituzten patroiak eta formak eraikiz. Lehen begiratuan puntuek apaingarri hutsak diruditen arren, bakoitzak funtzio bat betetzen du eta obraren esanahi orokorrari egiten dio ekarpena. Erabiltzen diren koloreak ere esanguratsuak dira, lurtean dauden pigmentu naturaletatik eratorri ohi direnak, eta horrek ederki erakusten du artistak beren ingurune naturalarekin duten lotura sakona.

2. Esplorazioa eta diseinua

- a. Ikasle bakoitzak pentsa dezala zer gai edo istorio irudikatu nahiko lukeen arte horren bidez, betiere naturan, animalietan edo aborigenen istorio tradizionaletan inspiraturik.
- b. Egin dezatela diseinua paperean, ondoren puntuen pinturaren teknikarekin bete ditzaketen sinbolo sinpleak eta irudiak erabiliz. Hain sortzailea ez den beste aukera bat da hainbat eredu izatea eta ikasleen artean banatzea, gainetik margotzeko eta beste batzuek egindako lan horien esanahia irudikatzeko.

3. Puntuen Artearen sorkuntza

- a. Banatu kartoi meheak, margoak eta puntuak margotzeko tresnak. Halaber, beste material batzuk banatu daitezke margotzeko, elementu naturalekin lotura dutenak: erremolatxaren egoste ura, kafea, infusioak, lurra...
- b. Teknika erakustea: nola erabili kotoizko makilatxoak, zotzak eta pintzelak pintura puntuetan aplikatzeko. Aurretik, beste paper batean egiten saiatuko gara, azken proiektuari heldu baino lehen.

4. Partekatzea eta Talde Gogoeta

- a. Bakoitzak bere artelana partekatzen ahalko du ikaskideekin, bere diseinuen atzean dagoen esanahia eta aborigenen arteari buruz ikasitakoa azalduz.
 - b. Amaitzeko, kulturak errespetatzearen eta baloratzearen garrantziari buruzko talde hausnarketa egingo da.
- Artea ezagutzak transmititzeko modu bat da, eta horrela, kultura guztiek beren adierazpideak aurkitu dituzte.
 - Komunitate jasangarria ongizate maila jakin batzuk dituen ere bada, eta komunitate horren

bizimoduak eta elkarrekintzak bat datoz bere kultur ereduekin.

- 16. GJHk bakea eta justizia lortu nahi ditu pertsona guztientzat. Pertsona guztiak bakean biziko badira, oso garrantzitsua da kultura guztiak errespetatu eta zaintzea.

5. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko “bidaia egunkarian” jasoko dute ikasitakoa.

Afrika

Amerika

Asia

Europa

Ozeania

Antartika

OZEANOA SALBATZEKO ARTEA

Jardueraren bidez nabarmendu nahi dugu oso garrantzitsua dela ozeanoak, itsasoak eta itsas habitatak kontserbatu eta zaintzea planetaren jasangarritasunerako eta garapen jasangarriko.

14. GJH - ITSASPEKO BIZITZA



15. GJH - LEHORREKO EKOSISTEMEN BIZITZA



HELBURUAK



- Itsas biodibertsitatearen garrantzia eta ozeanoak babesteko beharra ulertzea eta haien inguruan kontzientziatzea.
- Turismo jasangarriaren kontzeptua eta horrek itsas kontserbazioan duen eragina aztertzea.
- Talde gogoetarako eta arte adierazpenerako trebetasunak garatzea, gizartean aldaketak sustatzeko eta bultzatzeko bitarteko gisa.

MATERIALAK



- Ozeanoaren kontserbazioari eta turismo jasangarriari buruzko agertokiak edo dilemak dituzten txartelak (M. eranskina).
- Jantziak edo osagarri sinpleak (aukerazkoak), hainbat pertsonaia edo elementu irudikatzeko (adibidez, turistentzako eguzki-beturrekoak, arrantzale batentzako kapela).
- Eskola-materiala, zerbait marraztu edo osagarriren bat sortu nahi badute ere.
- Gogoeta eragiteko galderen zerrenda bat, jardueren ondoren egiteko.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Sarrera

Hasteko, azaldu labur ozeanoen garrantzia eta zer egin dezakegun haien babes bultzatzeko.

Ozeanoak Lurraren bihotz taupada dira, bizitzarako funtsezkoak hamaika modutan. Oxigenoa ematen digute, klima erregulatzen dute, milioika pertsona elikatzen dituzte eta itsas bizitza aberats-aberatsaren bizileku dira.

Ozeanoak, hala ere, giza jardueren mehatxupean daude. Kutsadurak, klima-aldaketak, arrantza neurrigabeak eta habitatak suntsitzeak bizitza-baliabide hori arriskuan jarri dute.

Nola lagundu dezakegu ozeanoak kontserbatzen? Ezer bururatzen al zaizue?

Adib.: plastikoen erabilera murriztu, kontsumo arduratsua praktikatu, kontserbazioa babestuz, jendea heziz eta sentsibilizatuz.

Ekintza bakoitza, txikia izan arren, onuragarria da gure ozeanoak babesteko eginkizunean. Ohitura jasangarriagoak hartuz gero eta beste pertsona batzuk ozeanoen garrantziaz kontzientziatuz gero, ziurtatuko dugu bizitza-baliabide aberatsa ere izaten jarraituko dutela etorkizuneko belaunaldientzat.

2. Agertokiak aukeratzea

- a. Banatu ikasleak talde txikitan eta eman talde bakoitzari agertoki txartel bat (VI. Eranskina).
- b. Taldeek minutu batzuk emango dituzte beren agertokia aztertzen eta emanaldi laburra prestatzen. Jantziak edo eskolako materiala erabil dezakete pertsonaiei eta narrazioei bitzta emateko.

3. Jarduketak:

- a. Talde bakoitzak bere emanaldia aurkeztuko du ikasleen aurrean. Animatu ikasleak adi egotera eta ikaskideek proposatzen dituzten irtenbideetan pentsatzera.
- b. Jarduketa bakoitzaren ondoren, utzi tarte labur bat gainerako ikasleen galdera edo iruzkin eraikigarrietarako.

4. Gogoeta eta Eztabaida

- a. Jarduerak amaitzeko, talde gogoetarako saio bat egingo da. Erabili galdera hauek eta antzekoak: "Zein irtenbide iruditu zitzaizun eraginkorrena?", "Nola sentituko zinateke pertsonaia horren egoeran?", edo "Zer egin dezakegu gure eguneroko bizitzan ozeanoak babesten laguntzeko?".
- b. Sustatu turismo jasangarriari buruzko eztabaida, eta hartzen ditugun erabakiek ingurumenean eragin onuragarria izan dezaketela.

5. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian" jasoko dute ikasitakoa.

ANTARTIKA



ANTARTIKA ESPLORATZEKO TALDEA

Jardueraren bidez nabarmendu nahi da zeinen garrantzitsua den ekosistemak eta biodibertsitatea babestea. Antartika oso ekosistema hauskorra da eta bertako biodibertsitatea mehatxupean dago. Habitatak eta bertan bizi diren espezieak babesteak duen garrantzia landuko dugu, ikasleek zer egin dezaketen azter dezaten beren inguruneke natura babesteko.

14. GJH – ITSASPEKO BIZITZA



15. GJH - LEHORREKO EKOSISTEMEN BIZITZA



HELBURUAK



- Lehorreko ekosistemen aniztasuna eta haietako faunaren eta floraren berezitasunak ezagutzea.
- Urak Antartikako ekosistemetan duen garrantziaz sentsibilizatzea.
- Lurraldeak dituen mehatxuak jakitea eta biodibertsitatea nola babestu ikastea (bai Antartikan, bai tokiko ingurunean).

MATERIALAK



- Antartikako mapa inprimatua edo proiektatua.
- Animalien eta landareen fitxak (pinguinoak, itsas txakurrak, likenak, krillak, etab.).
- Mehatxuak dituzten txartelak (berotze globala, kutsadura, arrantza industrial, kontrolik gabeko turismoa).
- Animalia babestuak, arriskuan dauden eremuak eta eremu babestuak irudikatzeko gomets koloretsuak.
- "Hondakinak" simulatzeko poltsak edo edukiontziak.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Sarrera

Erakutsi Antartikako mapa bat ikasleei eta azaldu ekosistema paregabea dela munduan. Gero, labur eztabaidatuko da zer animalia eta landare bizi diren bertan eta, klima-aldaketaren eta giza jardueraren eta gisako faktoreen ondorioz, arriskuan daudela.

Antartikaren garrantzia

Antartikan gure planetako ur gezaren % 70 inguru dago; bertako glaziarretan eta izotz-geruzetan, hain zuzen ere. Klima globalaren eta ur-zikloaren funtsezko erregulatzailea da. Antartikan, elurra metatzeko eta izotza sortzeko prozesuak funtsezkoak dira ur-zikloaren balantzea mantentzeko. Gainera, Antartikako izotz-geruzen urteak eragin nabarmena du itsas maila globalean; horrenbestez, guztiz garrantzitsua da kontinente hori kontserbatzea eta ur-zikloan betetzen duen eginkizuna ulertzea.

2. 1. misioa: Topatu Antartikako biztanleak

Jarduera taldeka egingo da. Talde bakoitzari Antartikan bizi diren animalia eta landareen (irudi eta deskribapen laburrak dituzten fitzak emango zaizkio: pinguiak, itsas txakurrak, baleak, likenak, etab. (VII. A. eranskina). Antartikako mapa erakutsiko da, eta hartan, fitxa horiek jarri beharko dituzte; zehazki, espezieak bizi direla uste duten lekuan.

Taldeek espezieak ikertu beharko dituzte mapan jarri aurretik edo dakitena partekatuko dute (Internet sarbidea duten gailuak emango dizkiegu, egokia bada). Talde bakoitza espezieak "babesteaz" arduratuko da.

3. 2. misioa: Babestu ekosistemak!

Talde bakoitzak Antartikako ekosistemarako hainbat mehatxu dituzten txartelak jasoko ditu (izotza urteza, kutsadura, arrantza industrial, etab.) (VII.B. eranskina). Pentsatuko dute nola eragiten dieten arrisku horiek beren espezieei eta nola babestu mehatxuetatik. Eranskailu berdeak, horiak edo gorriak beren espezieen ondoan jarri beharko dituzte, kontuan harturik haien ustez noraino dauden espezieak txarteletan azaltzen diren arriskuek mehatxatuak.

4. 3. misioa: Sortu ekintza plan bat eskolan.

Los equipos deberán idear un plan para ayudar a proteger la biodiversidad en su entorno cercano, inspirado en lo que han aprendido sobre la Antártida. Pueden crear un cartel o hacer un plan para cuidar el patio escolar o el parque del barrio. Cada equipo presenta su propuesta para proteger la naturaleza en su escuela o comunidad.

5. Azken gogoeta

Ikasitakoari buruzko gogoeta gidatuko dugu, haien ustez zer mehatxu diren premiazkoenak galdetuz eta nola aplikatu dezaketen ikasi dutena ingurunea zaintzeko.

6. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian" jasoko dute ikasitakoa.

TERMOMETRO BAT ANTARTIKAN

Jardueran klima-aldaketaz arituko gara, bai eta hark Antartikako izotz urtzaldiaren gainean dituen ondorioez ere eta, horrenbestez, itsas mailaren igoeraz. Ikasleak bultzatuko ditugu planeta "hozten" edo berotze globala murrizten edo geldiarazten laguntzen duten ekintzak pentsatzera, gure eguneroko bizitzan egiteko modukoak.

13. GJH- KLIMAREN ALDEKO EKINTZA



HELBURUAK



- Giza ekintzek klima-aldaketari nola eragiten dioten ulertzea.
- Klima ekintzaren eta erantzukizun kolektiboaren aldeko erantzukizuna sustatzea, dela norberarena, dela guztiona, Antartika ardatz harturik.

MATERIALAK



- Termometro erraldoi elkarreragile bat (bertsio inprimatu bat edo pantaila digital bat izan daiteke, ahal bada).
- Bi koloretako txartelak (gorria, berotzen duten ekintzetarako, eta urdina, hozten duten ekintzetarako).
- Zinta itsasgarria, markatzaileak eta guraizeak.
- Kronometro bat.
- Joko zatirako kanpaiak edo txirrinak.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Termometro elkarreragilearen diseinua

Prestatu termometroa, baina bertorio honetan tenperatura maila mugikorra da. Erabili belkro-zerrenda bat edo imanak, ikasleek tenperatura-adierazlea gorantz edo beherantz mugi dezaten, proposatzen dituzten ekintzen arabera. Ziurtatu "arriku" maila (beroa) eta maila "seguru" bat (hotza) izatea, tenperatura globalarekin eta Antartikako inpaktuarekin lotuta.

2. Ideia zaparrada tenporizadorearekin

Banatu ikasleak bi taldetan: hoztaileen taldea eta berotzaileen taldea.

Piztu kronometroa (adibidez, 3 minutuz). Denbora tarte horretan, bi taldeek ahalik eta ekintzarik gehien idatzi beharko dituzte.

- a. Berotzaileek klima-aldaketa areagotzen duten ekintzak idatziko dituzte (energiaren gehiegizko erabilera, plastikozko hondakinak, etab.).
- b. Hoztaileek, berriz, horri aurre egiteko ekintzak idatziko dituzte (energia berriztagarriak erabiltzea, zuhaitzak landatzea, birziklatzea).

Dinamismo-elementua: Ekipo bakoitzak termometroantze egin behar du korrika, txartelak dagozkion aldean berehala itsasteko (berotzailea edo hoztailea). Kronometroak jo baino lehen egin beharko dute.

3. Ekintzen aurkezpen azkarra (Eztabaida azkarra)

Talde bakoitzak minutu bat du bere ekintzak defendatzeko. Talde bakoitzaren ordezkari batek azalduko du zergatik eragiten dion ekintza bakoitzak klimari. Gainerako lankideek galderak egin ditzakete edo ideia gehigarriak erantsi, txartelak termometroan ikusgai dauden bitartean.

4. Termometroaren erronka: Temperatura Igo edo Jaitea

Termometroa puntu neutro batean hasten da. Talde bakoitzak aurkeztu dituen ekintzen arabera, ikasleek erabakiko dute (bozketa azkar baten bidez) ekintza horrek gehiago berotzen edo hozten ote duen. Talde bakoitzaren ordezkariak gorantz mugituko du termometroa ("berotu" egiten duela bozkatzuz gero) edo beherantz ("hoztu" egiten duela bozkatzuz gero).

Lehia dibertigarria: Termometroa arrisku mailara iristen bada, Berotzaileek txanda irabaziko dute. Maila segurura iristen bada, Hoztaileek irabaziko dute.

5. Gogoeta eragilea: ekintzak aldatzen

Taldeek, orain, elkarrekin lan egin beharko dute. Esaiezu gogoeta egin dezatela, hau da, nola bihurtu "beroa eragiten duten" ekintzak "hotza eragiten duten" ekintza?

Aparteko dinamismoa: Ikasleek txartel "beroetara" joan behar dute korrika, eta ekintza "hotz" berriekin ordezkatu. Horrek pentsamendu azkarra sustatzen du, bai eta irtenbideak aurkitzeko konpromisoa ere.

6. Norberaren gogoeta



Ikasleek pasaporteko "bidaia egunkarian" jasoko dute ikasitakoa.

ERREFERENTZIAK

ACNUR Comité español. (2018, 20 junio). Conoce a los niños trabajando en República Democrática del Congo [Vídeo].

YouTube. www.youtube.com/watch?v=cAJp-4GDfro



Add Visual Works. (2019, 22 abril). Turismo responsable [Vídeo].

YouTube. www.youtube.com/watch?v=ATZpmfkTU9o



Amani Live. (2023, 18 abril). Amani Festival 2023 Aftermovie [Vídeo].

YouTube. www.youtube.com/watch?v=zODH5NVznSo



Le Festival Amani à Goma - 14, 15, 16 et 17 novembre 2024. (s. f.).

amanifestival.com/fr/en-images



UNV DRC. (2013, 30 julio). GOMA AMANI Festival - Official Trailer [Vídeo].

YouTube. www.youtube.com/watch?v=G8ltuFT4f84



Imágenes de escuelas rurales y urbanas:

www.pexels.com/es-es/buscar/escuela%20en%20china/



